
Bilera mota: Ezohiko Udal Osoko Bilkura.

Data: 2014-12-22 (astelehena)

Ordua: arratsaldeko 19:00etan.

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Erreferentzia: E -14-06

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko abenduaren 19a

Idazkari-kontuhartzailea

AZTERGAI

ZERRENDA

1.- Ezkio-Itsasoko "Herri Eskola proiektuko 1º faseko exekuzio obra proiektua" Construcciones Arzarmendi S.A. enpresari esleitzea.

.....//...

1-E-14-06: EZOHICO UDAL OSOKO BILKURA

2014KO ABENDUAREN 22KO EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ezkio-Itsason, bi mila hamalauko abenduaren hogeita bian.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zaurretik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira honako Udalkide hauek:

- Mikel Igartua Anduaga (EIK).
- Joseba Etxezarreta Estala (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).
- Ruth Idiakez Alberdi (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz: inor ez.

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//...

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundearen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz.

.....//...

3-E-14-06: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

PUNTU BAKARRA:

EZKIO-ITSASOKO "HERRI ESKOLA PROIEKTUKO 1º FASEKO EXEKUZIO OBRA PROIEKTUA" CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI S.A. ENPRESARI ESLEITZEA.

IKUSIRIK:

Ezkio-Itsasoko Udal Osoko Bilkurak, 2014ko azaroaren 17an eginiko bileran, "Herri Eskola Proiektuko 1º Fasearen Exekuzio Obrak" kontratatzeke Ekonomiko-Administratibo baldintza zehatzen Plegua onartu zuela, eta halaber prozedura martxan jartzea.

Prozedura motari dagokionez, premiazko lehiaketa irekia erabili zela, eta iragarkia 2014ko azaroaren 20an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Eskaintzak aurkezteko epea 2014ko abenduaren 3an amaitu zela, eta eskaintza bakarra aurkeztu zela, Construcciones Artzamendi S.A.rena hain zuzen ere.

KONTUAN HARTUTA:

Kontratazio mahaia 2014ko abenduaren 4an bildu, eta dokumentazioa zuzen zegoela adostu ondoren, esleipen proposamena egitea adostu zuela "Construcciones Artzamendi S.A." enpresaren alde.

Esleipen proposamena bidali ondoren, "Construcciones Artzamendi S.A." enpresak, 22.6 artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu duela.

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA:

.....//...

4-E-14-06: EZOHIKO UDAL OSOKO BILKURA

“Herri Eskola proiektuko 1º fasearen exekuzio obrak” “Construcciones Artzamendi S.A. enpresari esleitzea 592.669,14 eurotan (BEZ barne) azpimarratuz interesatuak 15 lanegun dauzkala kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko, eta Aldizkari Ofizialeko publizitate gastuak ordaintzeko, alkate jaunari ahalmena emanaz esleipen honi buruzko edozein dokumentu publiko nahiz pribatua sinatzeko.

BIGARRENA:

Erabaki honen edukina interesatuei jakinarazi.

Beterik deialdiaren helburua, 19:30ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, alkate jaunak Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen du. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2014ko abenduaren 22a

O.E.
ALKATEA

.....//...